

ELHUYAR

ABENDUA 1977

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

ZUZENDARIA: *Luis Bandrés*

IDAZKARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Círculo de San Ignacio, - San Marcial, 26, bajo, - San Sebastián*

Editoriala:

Euskara eta Profesio eskolak

Orain arte Ikastolen mugimendiari esker, euskarak Oinarrizko Heziera Orokorra edo EGB-ren arloa nolabait betetzea lortu du. Textugintzan eta irakasle prestakuntzan, EGB mailan lan handia egin denik eta egiten denik, ez dago ukatzerik.

Baina, textugintza nahiz irakasle prestakuntza hobetzen dagoen lanaz gainera, ikastola berri gehiago egitea eta dauden EGB-ko ikastetxe pribatu eta ofizialak euskalduntzea, nahi eta ezko eginkizuna dugu. Gaur egun adibidez, Gipuzkoan EGB-ko ikastoletan %12 ikasle bakarrik baldin badaude, gainontzekoak ere horretaratzea lortu behar dugu, beren ikastetxeak euskaldunduz.

* * *

Bestetik, EGB bukatu ondoren, ikastoletako nahiz beste edozein ikastetxetako ikasleek, bi bideri jarraitzeko aukera dute: BUP edo batxillerrekoari batetik ala Profesio Heziketakoari (FP) bestetik.

Gaur egun, ikastoletako zenbait ikaslek, Profesio Heziketaren bidea hartzen du EGB bukatu ondoren. Baina gutxi batzuk ezik, beren heziketari «euskaraz» jarraitzerik ez dute. Izan ere bi ikastola besterik ez bait daude heziketa «euskaraz» (neurri handi batetan behintzat) ematen dutenak, eta hamalau urteko ikasleek heziketaren jarraipena euskaraz egiteko modurik ez izateari, guztiz kaltegarri derizkiogu. Beraz, Profesio Heziketaren arlo hau euskalduntzea ere, derriorrezko lana dugu.

* * *

Baina ikus dezagun lehenik gaur egun Profesio Heziketaren ikasketak nola antolaturik dauden.

Profesio Heziketa osoa, hiru ziklo edo mailatan banatua dago. Lehen maila (F.P. 1), bi urtekoa da eta 14-15 urteko ikasleek egiten dute. Bigarren mailak (F.P. 2), hiru urte ditu eta 16-17-18 urteko ikasleentzat da. Hirugarren maila berriz, (F.P. 3), beste hiru urtez osatua dago eta 19-20-21 urteko ikasleek egin dezakete.

Hiru maila hauetako bakoitzean, espezialitate desberdinak egin daitezke; hala nola, administraritza, mekanika, kimika, elektrikak, delineazioa, e.a. Ikasturte hauetako zenbait asignatura, espezialitate bakoitzari dagozkionak dira, eta beste zenbait, guztientzat berdinak.

* * *

Aurtengo ikastaroan Gipuzkoan, berrogeita hamabi ikastetxetan irakasten da Profesio Heziketa. Oraingoz, lehen maila bakarrik irakasten dute gehienek, nahiz eta batzuk bigarren maila ere eman.

Ikastetxe guzti hauetan, orotara seiren bat mila ikasle ari da lanean: %38 administraritzan, % 21 mekanikan, %12 elektrikan, %12 delineazioan, %3 ajuste edo doikuntzan, eta gainontzekoak, zurgintza, elektronika, kimika, automozio eta abarretan.

* * *

Profesio Heziketa euskalduntzekotan (eta hasiera batetan gure helburuak lehen mailara mugatu beharko ditugula gogoan izanik) bi joera posible ikusten ditugu etorkizunari begira: ikastetxe euskaldun berriak eraikitzea edo eta daudenak, epez epe eta urratsez urrats, euskalduntzea.

Ikastetxe berriak egiteko, baimenez gainera diru multzo handien premia dagoela ez dago esan beharrik, eta errentagarritasunari begiratu, gaur egun bigarren joerari jarraitzea egokiagoa dirudi; dauden ikastetxeak euskalduntzeari halegia.

Dauden ikastetxeak euskalduntzeko egiten ari diren saiotan ordea, oz-

topo batzuk badira gaur egun, eta oraindik urtetan zehar iraungo dutela-koan, aipa ditzagun banan bana:

a) **Zuzendaritza aldetik.**

Euskara asignatura bezala lehendabizi eta gero irakaskuntza euskaraz emateko, zuzendaritzak oztopoak jarri ohi ditu leku batzutan. Ikastetxe ofizialetan, irakaskuntza euskaraz emateko ez dago inolako asmorik, eta euskara asignatura bezala non edo non irakasten baldin bada ere, asignatura optatibo bezala eta ikasleen eraginagatik ezinbestean eman ohi dute. Ikastetxe pribatu gehienetan ere, euskara asignatura bezala bakarrik irakasten da, eta ikasleen presioz askotan.

b) **Ikaslego aldetik.**

Profesio Heziketa euskaraz emateak, euskaraz normaitasunez irakurri eta idazten duen ikaslegoa eskatzen du; ikasle talde alfabetatuak halebria. Ikasle asko dagoen ikastetxetan, ikasle euskaldunez talde batzuk eta erdaldunez beste batzuk osatzea, posible litzateke hasiera batetan. Era horretara, batzuri bederen, euskaraz irakatsiko litzaietete.

c) **Irakaslego aldetik.**

Profesio Heziketa euskaraz emateak, irakasle espezializatua eskatzen du; euskaraz normaitasunez irakurri eta idazteaz gainera, gai teknikoak ere euskaraz erabiltzeko gauza dena. Euskara teknikoak menperatzen duena, bestela esan.

d) **Textu liburu aldetik.**

Oinharri Heziketa Orokorrerako zenbait testu euskaraz argitaratu baldin bada ere, Profesio Eskoletarako ez dago beste horrenbeste esaterik. Hala ere, ez gaude esku hutsik arlo honetan. Elhuyar-en adibidez, geure ahaleginak egiten ditugu euskara teknikoak lantzen, eta aldizkari honetako lanez gainera, argitaratuak ditugu Danobat hiztegia eta enpresetako zenbait katalogo tekniko. Bestetik, Gilermo Larrañaga idazle saiatiuak, prestatua du teknologia mekanikozko liburu bat (argitaratu gabe dago oraindik). 1958.azko liburua.

Baina F.P.-ko testu liburu arazoan, oraintxe argitaratu den «Teknologia-Metala (F.P. 1.º I)» izango da agian lanik garrantzizkoena, Arrasateko Profesio Eskolaren eraginez, Elhuyar-ek prestatua du liburu hau, Everest argitaletxeak duena itzuliz. Datorren ikastarorako, bigarren urteko teknologia prestatzen ari gara, lehen liburu honi jarraipena emanaz.

Etorkizunari begira, ikaslerik gehienak administraritza espezialitatea hartzen dutela, ez dugu ahaztu behar. Beraz, ekonomia hiztegia egitea, premiazkoenetakoa da textu liburuak sail honetarako egiteko.

e) **Lege aldetik.**

Gaur egun, irakaskuntza euskaraz emateak, baditu zailtasun eta oztopoak lege aldetik ere. Euskaraz irakaskuntzan, debekatua dago ala ikasle irakasleek boluntarioki (eta beti ere euskara baztertu nahi dutenek lege-eskubide dituztela) hauta dezaketen zerbait da. Lege aldaketa batzuk egiteari ere, derrigorrezkoa derizkiogu.

f) **Ekonomia aldetik.**

Aipatutako zailtasunak gainditzeko, c) eta d) sailekoak batipat, talde profesionalizatuen lanak behar ditugu. Orain arte egin diren ahaleginak, euskal kulturaren barrutian gehienetan bezala, amateurismo hutsezkoak izan dira, eta egoerari erantzun serio bat ematekotan, profesionalizaziorako urratsa eman beharra dago. Horretarako, dirua behar ordea.

* * *

Epe laburrera geure Heziketa Ministergoren bat Autonomiaren barruan izan dezagunean, gure politikoak ohartuko ahal dira premia hauetaz! Eta ohartzen ez badira, izango ahal da, era batera ala bestera, gogora araziko dienik! Euskara, besteak beste lantegira eramateko, Profesio Heziketa euskalduntzea ezinbesteko urratsa baita.